

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

UME ALAIA

Libe, Beñat eta Ane Piratak institutuan ezagutu dute elkar eta oso lagun onak bihurtzen ari dira.



IRRIREN
LAGUNAK



BIZIPOZA

elkarlanean



Egia esan,
ez da garrantzitsua.
Ez nizun galdetu
behar.

Lasai, badakit ez duzula
asmo txarrez egin. Baina
nire azalaren kolorea baino
ez duzue ikusten askotan...

Malin jaio nintzen eta
umezurztegi batean utzi ninduten.
Hilabete gutxi batzuk nituela
ekarri ninduten Euskal Herrira.

Nire gurasoek beti esan
didate Malitik ekarri nindutela.
Nire guraso biologikoei
eskertu behar dietela
ni munduratu izana.





Ume Alaia
adopzio-familien elkarte
asociación de familias adoptivas

Familiarentzat eta haurrentzat laguntza gune bat izan nahi du elkarteak, adopzio prozesua ahalik ondoen joan dadin. Adopzioaren ondoren ere haurrek eta familiek izan ditzaketen beharrak asetu nahi ditu.



Adoptatutako haurrari bere inguruan egoki kokatzen lagunduko dioten tresnak eskaini nahi dizkio, eskolan, lagunartean.



Oraintxe hiru lan ildo nagusi dauzka: jatorriaren bilaketan laguntza eskaintzea, arrazakeriaren gaia lantzea eta elkarteko gazteen inplikazioa areagotzea.



Zarategi Ibilbidea 100. Txara 1 eraikina. Intxaurrondo. 20015
943-245606 eta 655726911
umealaia@gmail.com / www.umealaia.com